

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

4772

1269/2019 EBAZPENA, urriaren 1ekoa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena. Honen bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetan destinoa daukaten Fakultatibo mediko eta teknikoen lanbide-taldeko Fak. Esp. Analisi Klinikoen Teknikari-Mediku kategorian, Profila: Zitogenetika eta Genetika Molekularra, lotura estatutarioko izaera lortzeko hautaketa-probetako epaimahai kalifikatzailea izendatzen da.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren 2018ko otsailaren 5eko 103/2018 Ebazpenaren bitartez onetsi ziren Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan lotura estatutario finkoa eskuratzeko hautaketa-prozesuak arautuko dituzten oinarri orokorrak.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendarinagusiarenekainaren 4ko 488/2019 Ebazpenaren bidez, onetsi ziren Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetan destinoa daukaten Fakultatibo mediko eta teknikoen lanbide-taldeko Fak. Esp. Analisi Klinikoen Teknikari-Mediku kategoriako oinarri espezifikoak, Profila: Zitogenetika eta Genetika Molekularra.

Oinarri orokorrak onartu zituen Ebazpenaren 18. oinarrian aurreikusitakoarekin bat etorritz, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiak hautaketa-probak kalifikatuko dituen epaimahaia izendatuko du.

Horiek guztiak horrela, eta indarrean dagoen legedian pertsonaleko gaietan aitortuta ditudan eskumenez baliatuta, honakoa

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Lehen aipatutako kategoriako prozesuaren Epaimahai Kalifikatzailea izendatzea. Hori ebazpen honen eranskinean jasotako kideek osatuko dute.

Bigarrena.– Ebazpen honek duen egunetik aurrera emango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Ebazpen hau EHAAn argitaratzeko agintzea.

Laugarrena.– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan lotura estatutario finkoa eskuratzeko hautaketa-prozesuak arautuko dituzten oinarri orokorrak onartzen dituen Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren otsailaren 5eko 103/2018 Ebazpenaren 21. oinarrian ezarritakoari jarraituz, Ebazpen honen kontra gorako errekurtsoa jarri ahalko zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari, hilabeteko epean EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko urriaren 1a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
JUAN LUIS DIEGO CASALS.

ERANSKINA

FAK. ESP. ANALISI KLINIKOEN TEKNIKARI-MEDIKUA,

PROFILA: ZITOGENETIKA ETA GENETIKA MOLEKULARRA

Presidentea:

- Titularra: Ana María Puelles Lahoz.
- Ordezkoa: Raquel Pérez Garay.

Lehenengo epaimahaikidea:

- Titularra: Margarita Azpitarte Lizaso.
- Ordezkoa: María del Mar Galar Senar.

Bigarren epaimahaikidea:

- Titularra: Eduardo Amoroto Del Río.
- Ordezkoa: María Blanca García San Vicente.

Hirugarren epaimahaikidea:

- Titularra: María Begoña Basauri Elorza.
- Ordezkoa: Milagros Hernández Gómez.

Laugarren epaimahaikidea:

- Titularra: Juan Fernando Izquierdo Quirce.
- Ordezkoa: María Imaz Ocharan.

Bosgarren epaimahaikidea:

- Titularra: María Concepción De La Prieta Ferrero.
- Ordezkoa: Verónica Pando Olaso.

Seigarren epaimahaikidea:

- Titularra: María Blanca Fernández Benito.
- Ordezkoa: María Enriqueta Natividad Preciado San Miguel.

Idazkaria:

- Titularra: José Ángel Martínez Rodríguez.
- Ordezkoa: Fernando Guerricabeitia Ortuzar.